

noaua

**NOAUA! Kulturaldiaz
gozatzeko garaia da**

**Udal zergak ez dira
igoko 2016an**

**Larunbatean,
#Kilometroak2015-eko
eskertza jaialdia**



**Errauste-plantaren inguruan,
herri-kontsulta egitea eskatzen dute**

“Herriak erabaki dezala”



serigiosu@serigrafiaiosu.com

- kamiseta inprimategia
- pegatinak
- iragarki nahiz industri serigrafia
- laneko arropak
- enpresa opariak
- boligrafoak
- txiskeroak
- laser markaketak...

www.serigrafiaiosu.com

Ugaldea polig. 36 tel: 943 371954 USURBIL

G Auto Guria s.l

Auto Konponketa
Pre I.T.V.
Marka guztiak

943 363 298

Zelai-haundi 11, Osinalde Pol. USURBIL

Lehenengo 6
erosleentzako,
garaje bikoitza
banakako
prezioan!

ZURE AMETSETAKO ETXEBIZITZA

188.000 €_{tik}



12 ETXEBIZITZA
INGURUNE PAREGABEAN
Agerreazpi_n

- Etxebizitza argitsuak.
- Terraza handiak.
- Lorategidun behe solairuak.
- Primerako kalitateak.
- Diseinuzko materialak.

USURBILEN

VIVIENDAS LANIN S.L.

Lazkano Pasealekua, 1^º Behea
20009 Donostia

E.: contacto@viviendaslanin.com

943 46 88 60

www.viviendaslanin.com



Albisteak iruditan

Ezohiko bisitariak Udaletxean



Urriaren 29an, Udarregi ikastolako ikasleen bisita jaso zuten udaletxean. Xabier Arregi alkatearen azalpenak adi-adi entzun zituzten.

Laburrean

1952an jaiotakoen kinto bazkaria

Azaroaren 29an bilduko dira Patri jatetxean, arratsaldeko 14:00etan. Dastatuko duten otorduaren prezioa, 36 eurokoa izango da. Izen emateko epea zabalik egongo da, azaroaren 19ra arte. Izena emateko: 943 361 380.

1972an jaiotakoen kinto bazkaria

Azaroaren 21ean Aratzen. Izen emateko 40 euroko ordainketa egin behar da kontu zenbaki honetan, azaroaren 13a baino lehen: 0182 6043 21 0201514132 (BBVA). Ordainketa egi-terakoan ez ahaztu izen abizenak adierazteaz.

1965eko kinto bazkaria

Azaroaren 21ean, larunbatez bilduko dira Olarrondo jatetxean. Izena emateko deitu bi telefono zenbakiotako batera: 627 271 215 (Montse) Ana (686 969 112).

noa

Kultur Elkarte

Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldea. 20.170 Usurbil
943 360 321 /// elkartea@noaueus /// www.noaueus
Jendaurreko ordutegia: 10:00 - 14:00 / 16:00 - 19:00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria:
Idoia Torregarai.
Aldizkari koordinatzailea:
Imanol Ubeda.
Idazkaria: Aizpea Aizpurua.
Publizitatea: Beatriz Alda,
publizitatea@noaueus
Diseinu berria: Erroitz S. L.

Erredakzio kontseilua,
erredakzioa@noaueus:
Imanol Ubeda, Aritz Lasarte.
Banaketa: Olatz Rezola,
Arantxa Zulaika.
Laguntzaileak: Lontxo Zubiria,
Maria Angeles Arruti, Ainara
Arnaiz, Unai Aizpurua, Maria

Jesus Urbiet, Maddi Galbete,
Ana Urdangarin, Maddi Zaldia,
Iñaki Larrañaga, Pako Agudo, Jon
Etxabe, Alazne Begiristain, Denis
Elortza, Pello Aranburu, Xabier
Aranburu, Inma Balda, Luis Ara-
nalde, Nerea Zinkunegi, Maialen
Unanue, Ugaitz Agirre, Joxe Piñas,

Unai Agirre, Idoia Torregarai eta
Udarregi ikastola.
Tirada: 2.800 ale.
Lege-Gordailua: SS-668-96
ISSN: 1136-6818.

Inprimategia: Antza. Zirkuitu
Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.



EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua.



Usurbilgo Udala



Euskal presoak

Euskal Herra!



Luis Aranalde

Jalogüin

Aldi honetan maiz entzungo dugu hitz hau eta bere inguruko hausnarketatxo bat egin nahi izan dut oraingoan. Ez dut ingeleraz idatzi nahi izan, entzuten dudana bezalaxe baizik. Hitz honek “santu guztien bezpera” esan nahi du eta festa honen bi alderdiak aztertzeko parada daukat: hildakoen eta santuen kultura hain zuzen.

Hildakoena. Jalogüin jatorriz festa zelta da eta batez ere herri anglosaxoniarraren ospatzen da. Jose Jabier Eparza kazetariak honela dio: “Nire uste apalean, hildakoen kultura ospatzeko kristau tradizioa askoz egokiagoa da etikoki eta estetikoki zenbait lurraldetan ikusten ditugunak baino eta batez ere orain sartu diguten jalogüin lerdokeria hori baino. Hor ikusten ditugu gaztetxoak sorginez edo deabruaz edo zonziez maskaratuta bata bestearen atzetik “uuh!!” orro eginez. Zer arrai da ordea hau?”. Badirudi bat-batean ahaztu egin dugula hildakoriek gure aita, ama, senide edo lagun batzuk

izan daitezkeela. Beraien presentzia gure artean sumatzeko modu bat da hildakoen kultura, joan zaizkigun eta gure arteko lotura sendotzeko unea, baina ez modan jarri nahi diguten patotxada horri jarraituz.

Kontsumoaren kultural murgilduta gaude eta hilen inguruko manifestazio hauek ere negozioa egiteko aitzaki bihurtu dira: maskarak, moxorroak, gozokiak, kalabazak, santu hezurak eta abar... Maskara horiek gainera ezin itsusiago eta tetrikokoak dira eta hala ere erosi egiten dituzte. Adelaida Kintana kazetariak esaten zuen: “Globalizazioa burmuineta-raino sartu digute, baita festa horiek ospatzerakoan ere, gurea mantendu eta bultzatu beharrean”.

Santuena. Santu deitzen zaio kristau munduan zintotasunaren eredutzat hartzen den norbaiti eta Aita Santuak horrela deklaratu duenari ospakizun berezi batean. Kristautasunaren lehen hiru mendeetan herriak deklaritzen zuen aho batez norbait santu eta oro har martiriak izaten ziren. Hauek ez zituzten erasotzen erromatarrek beren fedearengatik; gutxi axola zi-

tzaie zein jainko edo jainkosa adoratzeko zuten. Arrazoia zen beren jarrera batzuk onartezinak zirelako Erromako agintarientzat, hots, esklabo eta nagusien arteko berdintasuna aldarrikatzea, enperadorea gurtzeari uko egitea eta abar. Beraz, garai hartako intsumisoak zirelako jazarritzen zituzten.

Duela mila urte gauzak aldatu ziren; prozesu berezi baten ondoren deklaratzeko santu erabaki zen; hiru etapa zituen: lehena agurgarri, bigarrena beato edo zoriontsu eta hirugarrena santu. Mirakulu bat eskatzen zaio beatoari eta bi santuari. Gurtza ematen zaie eta modelotzat jartzen ditu Elizak. Santu guztien eguneko kultu berezi horretan kanonizatuak izan direnak eta kanonizatu gabe asko sartzen ditu.

Lehen ere idatzi izan dut foro honetan kanonizazio mundu hau guztiz anakronikoa iruditzen zaidala eta askotan ez daukala zerikusirik santutasunarekin. Mirariak eskatzen zaizkie santuei; batzuen ustez Jainkoa gure ezinak konpontzeko dago edo gure hutsuneak betetzeko. Hori ez da fedea, superstizioa baizik, Jainkoa erabiltzea

deitzen zaio horri, infantilismo erlijioso huts.

Nire iritzia umilean, maite duen oro da santu, beraz, sinestekunak eta sinetsgabeak, ateak nahiz agnostikoak, erlijio batekoak edo besteak, heterosexuala, homosexual nahiz transexual izan, balore unibertsalak bizi dituen da santu. Ebanjelioan ez da eskatzen miraririk zoriontsu eta santu izendatzeko. Zoriontsuak, dio ebanjelioak, bihotzez pobre direnak, hau da, pilatu beharrean elkar banatzen saiatzen direnak. Zoriontsuak bakegileak, hau da, arazoak konpontzeko unean mutur joka ibili beharrean, elkarriketa eta tolerantzia erabiltzen dituztenak. Zorionekoak justiziaren gose eta egarri direnak, hau da, axola gabeak izan beharrean, kausa zuzen guztien alde borrokatzen dutenak. Jarra horiek bakarrik dira betikotasunaren hazi, horiek besterik ez ebanjelioaren ezaugarri.

Kanonizazioen parafernalia aldatzen izango du nahiko lan Frantzisko Aita Santuak. Ekin diezaiola lehenbailehen.

Imanol Ubeda | Aritz Gorriti | Nerea Zinkunegi | Maialen Unanue | Joxe Piñas | Ilazki Gaintza | Idoia Torregarai | **Luis Aranalde**

**ALKORTA
AUTOZERBITZUA**

Baserriko haragia

•Frutak •Barazkiak •Etxeko produktuak •Izoztuak

Beheko kalea 4, ATXEGALDE AUZOA 943 36 57 42

ARRANDEGIA
PELLO
PUNTAPAX 7
943 36 21 64
USURBIL

Okindegia-Gozotegia
LABE-GOXO

“Gehien birziklatzen duten herriak ekonomikoki itotzen jarraitu nahi dute”

PNVk eta PSEk “San Marko gehien birziklatzen duten herriak ekonomikoki itotzen jarraitu nahi dute. Herriok ez dagokien dirutza ordaintzen jarraitzea behartu nahi dituzte, agonia luzatu eta gutxiago sortzeko ahalegina egiten dutenak zigortuaz. EHBildutik argi dugu hau herritarren kontra jarritako errekursoa dela”, Mankomunitateko kide diren udaletako EHBilduren ordezkariak, berriki agerraldi bidez salatu zuten.

EH Bilduk salaketa aurkeztu zuen, hondakin gutxien sortzen duten San Marko Mankomunitateko udalerriek ordaindu beharreko kopurua gehiegizkoa eta injustua zela iritzita. EAEko Auzitegi Nagusiak uztaillean argitara eman zuen epaia eta epai haren aurka helegitea aurkeztu dute EAJ-PNV eta PSE alderdiek. Helegite hau salatu dute hain zuzen, EHBilduko ordezkariak eta abokatu bidez, epaia “kautelarki aplikatzeko” eskatu dute.

Jasotako zerbitzuaren arabera ordaintzea

Koaliziotik nabarmendu dute, EAEko Auzitegi Nagusiaren “sententzia argia da. San Marko osatzen dugun herriok jasotzen dugun zerbitzuaren arabera ordainketa egin behar dugu, eta ez orain arteko moduan, populazioaren proportzioaren arabera. Gainera, gaikako bilketa maila altuenak



Gaikako bilketa maila altuenak dituzten herriak gutxien birziklatzen duten herrien hainbat zerbitzu ordaintzera behartu dituztela dio EHBilduk.

SORTZEZ BESTE

Udalerri bakoitzak sortutako hondakinen arabera ordaintzea defendatzen du koalizioak, “ez da justua, esfortzu hori egiten ez dutenen maila berean ordaintzea”

dituzten herriak, gutxiago birziklatzen duten herrien hainbat zerbitzu ordaintzera behartu gaituzte, eta beraz, Astigarraga, Hernani, Lezo, Oiartzun, Pasaia edo Usurbil bezalako herrien artean, Donostia, Lasarte-Oria, Errenteria eta Urnietaren hondakinen bilketako hainbat zerbitzu ordaindu ditugu”.

“Ez da justua”

Epaia duela urtebete San Marko Mankomunitateko lehendakari Denis Itxasok esandakoa gezurtatzen duela diote.

“Astigarraga, Hernani, Lezo, Oiartzun, Pasaia eta Usurbilgo Udalek 262.000 euroko zorra zutela adierazi zuen”, diote. Gainera, “Denis Itxasok berak, San Marko Mankomunitateko batzarrean, zenbait herri gaia epaitegietara eraman izanez pozten zela adierazi zigun, horrela erabakia irmoa eta zalan-tzarik gabekoa izango zelako. Berak zor horren aurrean kontudentziaz jokatu zuela ere mehatxatu zuen”.

Orain, EAEko Auzitegi Nagusiaren epaia eskutan, Itxasori, “bere hitzekin kontsekuente izateko” eskatzen diote EHBilduko ordezkariak, eta “egungo hondakinen kudeaketa gastuak injustuak izateari” uztea. Udalerri bakoitzak sortutako hondakinen arabera ordaintzea defendatzen du koalizioak, “ez da justua, esfortzu hori egiten ez dutenen maila berean ordaintzea”.

Kopuruak

Epaia aplikatuta, EHBilduren arabera, urtero gutxiago ordaintzea dagokie, San Marko Mankomunitatean gehien birziklatzen duten udalo:

Usurbilek

3.700 euro gutxiago.

Astigarragak

30.000 euro gutxiago.

Hernanik

114.000 euro gutxiago.

Lezok

36.000 euro gutxiago.

Oiartzunek

60.000 euro gutxiago.

Pasaia

93.000 euro gutxiago.

Patri
Patri Jaietxea
bazkariak EGUNERO
afariak, asteazkenetik larunbatera
© 943 362725 · © 688 690 361

BORDATXO
taberna
Pintxo Bereziak
943 37 10 42
Zubiaurrenea 5

txirriStra
TABERNA
-Plater konbinatuak
-Ogitartekoak
-Pintxoak
Kontzeju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

Igoerarik ez 2016ko zerga ordenantzetan



EAJ-PNVk eta PSE-EEk EHBilduren proposamenarekin bat egin zuten. Aho batez onartu dira, hortaz, zerga ordenantzak.

2016rako zerga ordenantzetan igoerarik ez du aplikatuko Usurbilgo Udalak. Hala proposatu du gobernu taldeak, eta aho bateko babesa izan zuen gainerako udal taldeen aldetik ere, urriaren 27an egindako osoko ohiko bilkuran.

Hasieraz onartu diren 2016ko zerga ordenantzen informazioa jendaurrean jarriko du Udalak iragarki taulan eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, “interesdunek espediente aztertu eta erreklamazioak aurkeztu ahal izateko”. Erreklamaziorik aurkeztuko ez balitz, aipaturiko epea igarota, behin betiko onartutzat eman go dira urte berrirako zerga ordenantzak. Erreklamazioak egongo balira, hauek ebatzi eta Ordenantzaren behin betiko idazketa egingo da.

Berrikuntzak hobarietan

Zerga ordenantzetan ez, baina urte berrirako hobarietan bai, zenbait aldaketa txertatu ditu Udalak:

■ %95eko hobaria aplikatuko da, “baldin eta eraikuntza, instalazio edo obretan energia aurrezte lortzen bada”.

■ %90eko hobaria, “eraikun-

tza, instalazio edo obrek pertsona ezinduen irisgarritasun baldintzak errazten dituztenean”.

■ %90eko hobaria, “eraikuntzak, instalazioak edo obrak interes berezikoak edo udal onurakoak izendatuta daudenean zirkunstantzia kultural edo historiko-artistikoak izateagatik eta Udalak onartua duen Plan Orokorreko Ondare Katalogatuaren zerrendan, lehen eta bigarren kategorian agertzen direnean”. %50eko hobaria, aipatu kategorია hauek ez daudenean.

■ %15eko hobaria, “babes ofizialeko etxebizitzekin zer ikusia duten eraikuntza, instalazio edo obrak direnean, subjektu pasiboek aurrez eskaera bideratu beharko dutelarik”.

Udal materialaren alokairua

Aldaketa gehiago. Usurbilgo Udalari geroz eta gehiagotan eskatzen zaizkio herritik kanpoko eragile, erakundeen aldetik, beste udalerrietako ekimenetarako mahai eta aulkiak. Aurrerantzean material hau herritik kanporako alokatzeak kostua izango du. 0,3 euro aulki bakoitzeko, 3 euro mahai bakoitzeko. Birjarpenagatik, 10 euro eta 50 euro ordaindu beharko dira, aulki

eta mahai bakoitzeko hurrenez hurren. “Prezio sinbolikoak” dira Udalaren esanetan.

Zorren ordainketan atzerapena emateko irizpideak

“Helbideratutako agiriak borondatezko epearen azken egunean kargatuko dira zergapekoak emandako kontu korrontean”, Udaletik ohartarazten dutenez.

Azken egun horretan edo beranduago, zorrak ordaintzeko atzerapenak eskatu ahal izango dira eta. Honatx beste berrikuntza. “Udalak eskatutako zergen subjektu pasiboek beren zorren ordainketa atzeratzeko edo zatikatzeko eskatu ahal izango dute”. Atzerapena emateko Udalak irizpide orokorrok finkatu ditu:

■ 150-1.500 euro arteko zorrak “6 hilabetez atzeratu edo zatiatu ahal izango dira gehienez, beti ere gutxieneko kuota 150 eurokoa izango delarik. Berandutze interesak kobratuko dira”.

■ 1.500 eurotik gorako zorra bada, “edo zatitzeko epea 24 hilabete baino gehiagokoa ezingo da izan inolako kasuan, beti ere gutxieneko kuota 300 eurokoa izango delarik”.

Progresibitatean oinarritutako sistema

Usurbilgo zerga sistema progresibitatean oinarrituta dago. Adibidez: ibilgailuei ezartzen zaien zergari dagokionez, “gero eta potentzia handiagokoa izan autoa, pagatu beharreko zerga ere handiagoa izango da”, halaxe adierazi digu Alaitz Aizpuruak EH Bilduko zinegotziak.

Jarduera Ekonomikoen Gaineko Zergari dagokionez, gauza bera. “Fakturazioan gero eta bolumen handiagoa izan, enpresa horrek ordaindu beharko duena ere gehiago izango da”.

Progresibitatea zerga guztiei aplikatzen zaie, baita kontsumoetan ere. Uraren kasua har dezagun adibide gisa: “gero eta ur gehiago kontsumitu, aplikatuko den tasa handiagoa izango da”.

Prezio publikoen izaera duten tasak

Kontsumoaren eta azpiegitura mantenuaren arabera ezartzen da uraren tasa. Alaitz Aizpuruak aditzera eman digunez, “kasu haueetan, tasak ezin du inoiz kostua baino handiagoa izan”.

Ordenantza Fiskalekin egitasmo ezberdinak finantzatzen dira

Zuzenean ala zeharka, herritarrek ordaintzen dituzten zergekin udal egitasmo ezberdinak finantzatzen dira. Ordenantza fiskalen eskutik, udal aurrekontuaren %55a finantzatzen da.

Bizikidetzan sakontzeko gonbita, gobernu taldetik gainontzeko udal taldeei

Irailaren 23an hainbat pinta- da egin zituzten ezezagunek, EAJ-PNV-k Usurbilen duen egoitzan. Handik astebetera egin zen osoko ohiko bilkura amaieran, galdera eta eskaeren atalean, gainerako udal taldeei gertaera honi loturiko oharra banatu eta irakurri zuten jeltzaleek. Hiru puntuko testuan, aipatu ekintza salatzea, bizikidetzaren alde errespetuaren alde agertzea, eta pintadak ahal bezain laster garbitzea eskatzen zioten udalbatzari. Bizikidetzaren bultzatzearekin bat egiten zutela, eskaerak jasota geratzen zirela, hartuemanetan izango zirela eta gaiak lasaiago hitz egiteko asmoa agertu zuen gobernu taldetik, Xabier Arregi alkateak.

“Bakearen eta bizikidetzaren alde”

Urriaren 27an eginiko osoko bilkuran etorri zen EAJ-k duela hilabete eginiko eskaeren aurreko EHBilduren erantzuna, adierazpen moduan. Pintadak, Baigorri izandako atxiloteten ostean egin zirela oroitarazten du testuak. Gertakariaren aurrean, “Usurbilgo EHBilduren udal taldeak garbi adierazi nahi du bakearen eta bizikidetzaren alde daukan konpromisoa”, zioen alkateak osoko bilkuran irakurritako testuak. EAJ-ren egoitza atarian eginiko pintadak ez dituzte ontzat hartzen, “iruditzen zaigulako kalte egiten diola bakeari eta bizikidetzari”. Gaineratzen dutenez, “bake, bizikidetzaren eta normalizazio politikoaren aldeko jarrera aktiboa eta konprometitua adierazten dugu, eta saiaturako gara Usurbilgo eragile eta herritarrekin batera dinamika egokiak bultzatzen”. Aldiz jeltzaleek pintadak kentzeko eginiko eskaerari dagokionez, “iruditzen zaigu ez dela Udalararen zeregina lokal pribatuetakoa pintadak garbitzea”.

Pintaden aurrean gobernu



Udalbatza, ekainean osatu zeneko irudia.

EH BILDU USURBIL

“Zubiak eraikiz, elkarrizketan arituz, diagnostikoak eta aurrera begirako ekinbideak adostuz egin behar dugu aurrera, eta ez elkarri eraso eginez”

taldetik erakutsitako jarrera positibotzat jo zuen EAJ-PNV taldeak. Aldiz, pintadak Baigorri izandako atxiloteten ondorenean izan zirela dio EHBilduren adierazpenak eta honen harira, “ekintza justifikatua dagoela dirudi” zioten EAJ-tik aurreko asteko osoko bilkuran irakurri zuten adierazpenean. Duela hilabete egoitza atarian eginiko pintadak kentzeko eskaera ere berretsi zuten.

Atxilotetei buruz EHBilduren testuan egiten den aipamena, egileek pintadak egiteko zituzten zergatiak loturikoa ez dela, baizik eta, egun haietako “testuinguru politikoan” kokatzeko zela adierazi zuen alkateak. Pintadei dagokienez gobernu taldeak ere bere jarrera berretsi zuen, “lokal pribatuetakoa pintadak kentzea Udalak ez du zertan bere gain hartu behar” zioen alkateak. Neurritz kanpokoa litzateke eta bestela, Arregik gaineratzen zuenez, halako egoeren aurrean Udalak

bere gain hartu beharko lukeen erantzukizuna.

Elkarlanerako deia

Bizikidetzan Euskal Herriko hainbat udalerrietan eman diren urratsak eredugarritzat joz, Usurbilen ere aurrerapausoak emateko gonbita luzatu zien alkateak udal taldeei. “Eskua luzatzen dizuegu, bakea eta bizikidetzaren eginiko ahaleginei bidea emateko”. Bere ustez, beste hainbat herrietan gertatzen ari den moduan, Usurbilek ere “bal-dintza egokiak ditu elkarlan horretarako”.

Posta bidez bozkatzeko eskatzeko epea zabalik

Abenduaren 20an ospatuko diren hauteskundeetan, posta bidez bozkatu ahal izateko eskaera Correosen aurkeztu daiteke, abenduaren 10a baino lehen. Eskaera egiten dutenek, azaroaren 30etik aurrera jasoko dute modu honetan bozkatzeko beharrezko dokumentazioa. Abenduaren 16a arteko tartea izango dute gero, posta bidez bozkatzeko. Bestalde, azaroaren 2tik 9ra hautesle-zerrendak jendaurrean erakusgai jarri eta erreklamazioak aurkezteko aukera egongo da, udaletxe eta kontsultetxeetan.

2016an igogerarik ez, herri barruko taxi tarifetan

Urtariletik aurrera ez da diru gehiago ordaindu beharrik izango, herri barruko taxi zerbitzua baliatzeagatik. Datorren urtean ere, bere horretan mantenduko dira Usurbilgo taxi zerbitzuetako tarifak. Modu honetan, Usurbilgo Udalak bat egin du Buruntzaldean dauden bi taxi elkarteek eginiko proposamenekin. Agitax eta G.Taxi elkarteek hain zuzen, 2016rako taxi tarifak ez garestitzea eskatzen dute. Urriaren 27an egindako osoko ohiko bilkuran, udalbatzak erabateko babesia eman zion bi taxi elkarteon planteamenduari.

Udalbatzak hartutako erabakiaren berri emango diote orain, Eusko Jaurlaritzako Industria, Merkataritza eta Turismo Sailari, “behin betiko onespina eman dezan”. Erabakiaren ziurtagiria helaraziko zaie baita, “herriko taxi titularrei, G.TAXI eta AGITAX elkartei, Foru Aldundiko Garraio Departamentuari eta Gasteizko Ekonomia eta Ogasun Departamentuko ardura-dunari”.

Pleno honen aurretik, igaro den urriaren 2an Buruntzaldeko udal ordezkariak, bi taxi elkarteetako kideak eta zenbait taxi titular bildu ziren gai honi buruz hitz egiteko. Agitax eta G.Taxi elkarteek eginiko proposamenak aho batez onartu zituzten bilkura hartan. Baita gerora eginiko Udaleko Zerbitzuak eta Obrak Batzordean ere. Udalbatzak ere bat egin zuen aurreko astean.

Honenbestez, honako hauek izango dira 2016an aplikatuko diren taxi tarifak:

Tarifa 1 (lanegunetan, 7:00-22:00 artean):

Gutxiena: 5,12.

Egindako kilometroak: 1,0885.

Itxaro ordua: 20,8880.

Tarifa 2 (egunero, 22:00-07:00 artean; larunbat, igande, jai egun eta abenduaren 24 eta 31n, 7:00-22:00 artean ere bai)

Gutxiena: 6,1028.

Egindako kilometroak: 1,7436.

Itxaro ordua: 32,8274.

“Erraustegia egingo den ala ez, herriak erabaki dezala”

Hala nahi du Usurbilen osatu den Erraustegia Erabakia plataforma berriak; egungo Gipuzkoako Foru Aldundiak Zubietan eraiki asmo duen errauste plantaren inguruan herriari hitza ematea, azken hitza herritarrek izatea alegia.

“Erraustegi hori guk, herritarrok, ordaindu beharko genuke gure diruarekin eta gure osasunarekin, baina inork ez digu galdetu ea hori nahi dugun ala ez. Bada garaia gizartean hainbesteko polemika harrotzen duten gaietan herriari hitza emateko. Hori bultzatzeko elkartu gara hainbat zubietar eta usurbildar”, bilgune berriaren esanetan.

Proiektu honen inguruan herritarrek kontsultatzea nahi duen plataforma dugu Erraustegia Erabakia. Zubietar eta Usurbilgo herritar talde batek osatzen du, eta aurre-



Larunbat honetan, aurkezpen ekitaldia egingo dute. 11:00etan Potxoenean.

“Bada garaia gizartean hainbesteko polemika harrotzen duten gaietan herriari hitza emateko. Hori bultzatzeko elkartu gara hainbat zubietar eta usurbildar”

ko ostiralean aurkeztu zuten hedabideen aurrean. Jendarean berriz, larunbat honetan, azaroaren 7an emango dute ezagutzera, goizeko 11:00etan

Potxoenean. “Laguntzeko prest dauden herrikide guztiak ongi etorriak izango dira”, adierazi zuten Mikel Laboa plazako agerraldian.

Sinadura bilketa, kontsulta eskatzeko

“Erraustegia egingo den ala ez, herriak erabaki dezala” nahi du plataforma berriak eta bide batez, “kultura demokratikoa zabaltzeko herrian eta, bereziki,

agintarien artean; gai batek gatazka eta desadostasuna pizten duenean gure gizartean, herriak berak erabaki behar du, zuzenean eta bitartekorik gabe”.

“Erraustegia nahi dugun ala ez”, usurbildarrek udalerrian bertan bozkatzea nahi dute ahal bezain laster eta berme guztiekin. Horregatik Usurbilgo Udaleri kontsulta bat antolatzea eskatzen diote, “herrikideen nahia zein den jakiteko, eta dagokien beste instituzioei jakinarazteko”.

Erraustegiaren inguruko kontsulta lehenbailehen egitea eskatzeko sinadurak biltzen hasiko dira Usurbilen.

Aurkezpena larunbatean

Eguna: azaroak 7, larunbata.

Ordua: 11:00.

Tokia: Potxoenea.

Deitzailea: Erraustegia

Erabakia.

Hausnarketa saioa deitu du Gure Esku Dagok

Hausnarketa eta eztabaidarako saioa, ostiral honetarako, azaroaren 6rako antolatu dute, arratsaldeko 19:00etan Potxoenean. ““Eskura” hausnarketaren inguruan egin nahi dugun jardunaldira gonbidatu nahi zaitugu. Anima zaituzte! Zure ekarpenak beharrezkoak dira eta”, luzatu du gonbita Gure Esku Dagok.

Euskaldunon erabakitze eskubidearen aldeko mugimenduak, herri eta auzoetan abiatu duen “Eskura” hausnarketa prozesuaren baitan egingo da Usurbilgo jardunaldia ere. “Erabakiaren aroa hasi dugu Euskal Herrian. Giza kate bat egin genuen abiada hartzeko.

Hautestontziak eraiki genituen elkarrekin, egin beharreko bidea batera egiteko. Orain hautestontziei erabilera ematea dagokigu. Erabakitzea goaz. Baina zer? Noiz? Nola? Galdera horiei erantzuteko erronkari heldu dio Gure Esku Dagok. Herritarrok erabaki dezagun, askatu beharreko korapiloak askatuko ditugu eta horretarako lehen geltokia “Eskura” hausnarketa izango da”.

“Hurrengo geltokiak zehaztera goaz”

Gure Esku Dago mugimendutik proposamen bat aurkeztu dute eta proposamen horri ekarpenak egiteko garaia da orain, azaroaren 9ra arte. “Gure Esku Dagoko kideok herritar orori egi-

ten diegun eskaintza da Eskura prozesua. Irekia eta parte hartzailea, elkarrekin lan egiteko aukera berri bat. Adostuko ditugu Gure Esku Dagoren jarduerak, antolamendua eta finantzamendua. Finean erabakirainoko hurrengo geltokiak zehaztera goaz. Eztabaida sustatzeko 8 orriko proposamena jarriko dugu mahai gainean. Horri nahi beste ekarpen egiteko tartea izango du herritar orok azaroaren 9a bitartean”, zehaztu dute.

Sarean txostena eta eztabaida foroa

Prozesu honetan parte hartzeko gonbita luzatzen dute. “Horregatik zuri ere Eskura hausnarketan parte hartzeko gonbida-

pena egin nahi dizugu. Eskutik Eskura egin nahi dugulako lan. Erabakirainoko bidea herritarren Eskura jartzeko”, Gure Esku Dagokoen esanetan.

Ostiralean, Potxoeneko saiora joanda egin ahalko dira ekarpenak. Baina baita sarean ere. Eztabaida foroa sortuko da, eta bertan parte hartzeko aukera izango da. Bildutako ekarpen guztiok, Gure Esku Dagok azaroaren 21ean egingo duen ezohiko batzar nagusian hartuko dira erabakiak.

Gure Esku Dagok eztabaida eta hausnarketarako aurkeztu duen txostena, ekarpenak sarean egin eta informazio gehiago eskuratzeko:

gureeskudago.eus/eskura/

Giro ederra Artisautza Azokan

Azaroaren Lehenarekin batera ospatzen da Artisautza Azoka. Klasiko bat, herriko kultur agendan. Aitzaga elkarteak antolatzen du eta, itxiera arriskuan den honetan, bi pankarta handi ipini zituzten frontoian. "Aitzaga libre" zioen batek, "Aitzaga eta beste herrikoak libre eta zabalik" besteak.

Pitxiak, arropa, egur tailak, masajeerako osagaiak, jatekoak, edatekoak... Eskaintza oparoa izan da beste behin ere. Gainera, taloa dastatzeko aukera izan zen. Honakoan, talde berri batek hartu du taloa egiteko ardura. Gaztain erreak ere har zitezkeen aukeran.

Buruhandi eta erraldoien kalejira

Artisautza Azokarekin bat eginez, Lauburu Konpartsakoak kalejiran ibili ziren. Buruhandiak eta erraldoiak herrian barre-na ibili ziren, txikien gozamenerako.



Pitxiak, arropa, egur tailak, masajeerako osagaiak, jatekoak, edatekoak... Artisautza Azokaren eskaintza oparoa izan zen beste behin ere.



Talde berri batek hartu du bere gain taloa egiteko ardura.



Taloaz gain, gaztainak dastatzeko aukera ere izan zen.

Artisau txikien festa

Tailer sortzailea inondik ere, larunbat arratsaldean frontoian ospatu zena. Lauburu Usurbilgo Erraldoi eta Buruhandien Konpartsak eta Txirinbolo saltokiak, kareta egiteko tailerra antolatu zuten haur eta helduentzat. Frontoian ikusi genituen, margoak, kartulinak eta guraizeak eskutan, aurpegietarako estalki polit askoak lantzen. Biharamunean, Artisautza Azokako kalejiran erakutsi ahal izan zituzten.



Larunbateko tailerra.

“Hizkuntzaren transmisioak

Hezkuntza Topagune izateko sortu zen Hik Hasi, duela 20 urte; hezitzaileei zuzendutako Hik Hasi aldizkaria eta formazioa ditu bizkarrezurrak. Orain 3 urte eta erdi, berriz, Hazi Hezi aldizkaria argitaratzen hasi ziren.

«Ikusi genuen aldatzen ari zirela gizartea, familiak... eta gurasoek kezka asko izaten zituztela». Heziketan eta hazieran, euskarazko beste baliabide bat sortu zen horrela.

Joxe Mari Auzmendi hernaniarra da Hik Hasiko koordinatzailea, eta Arantzazu Muñoa irakasle eta kazetari zeraindarra, berriz, lan taldeko kideetako bat. «Hutsuneak ikusten ditugun tokietan saiatzen gara», diote. Horrela sortu zen hezitzaileei zuzendutako Hik Hasi proiektu pedagogikoa, eta horrela sortu zuten, duela 3 urte, gurasoei zuzendutako Hazi Hezi aldizkaria. Guztia, euskaraz.

Hain zuzen, 2016an Gipuzkoan jaiotzen diren haur guztien etxeetara Hazi Hezi aldizkariaren ale berezi bat bidaltzeko asmoa dago.

Etxea, eskola eta komunitatea; ezinbesteko hiru hanka

Hik Hasi duela 20 urte sortu zen, euskal hezkuntza proiektu propioa sortzeko. «Ikusi genuen irakasle askok ordurako klaseak euskaraz ematen zituztela, baina irakasleek, orokorrean, gaztelaniaz jaso zutela formazioa, eta lanerako ere, gaztelaniazko ereduak erabiltzen zituztela. Horregatik, Hik Hasi aldizkariak eta hezitzaileei zuzendutako formazioak dira proiektuaren bizkarrezurra. Aldizkaria eskola guztietara bidaltzen da».

Baina bestelako hutsuneak ikusi zituzten aurrerago. «Haurrek euska-



Arantzazu Muñoa eta Joxe Mari Auzmendi, Hik Hasiren bulegoan.

“Gurasoei zuzendutako aldizkariak mundu anglosajoitik datozten ereduak kopiatzen dituzte, eta Hazi Hezi hutsune hori bete nahi izan du, euskarazko arloan”

raz ikasi, baina gaztelaniaz jolasten zuten. Horrela, pixkanaka bestelako materiala ere sortu dugu: haurren jolas abestiak, bideoak, musika lantzeko programak, umekin lantzeko Sarrionandiaren ipuinak... Etxera eta aisialdira begirako produktuak.

Horrez gain, duela dozena bat urte beste hutsune bat ere sumatu zuten. «Ikusi genuen aldatzen ari zirela gizartea, familiak... eta gurasoek kezka asko izaten zituztela». Horrela, Hazi Hezi aldizkaria sortu zuten, gurasoei zuzendua. «Ideia da eskolak, etxeak eta komunitateak (herria, aisialdia) ildo pedagogiko hezitzaile bera izatea».

Heziketa eta haziera, euskaraz

Hazi Hezi aldizkariaren lau ale argitaratzen dituzte urtean. «Baziren gurasoei zuzendutako bestelako aldizkariak, baina guztiak erdaraz. Horietako askok mundu anglosajoitik datozten ereduak kopiatzen dituzte, edo, ka-

surik onenean, eredu espainolak eta frantsesak hartzen dituzte kontuan. Hazi Hezi hutsune hori bete nahi izan du, euskarazko arloan. Aditu euskaldunekin jorratzen ditugu gaiak. Bitartekari lana egiten dugu aditu eta gurasoen artean, eta lantzen dira euskal ikuskera eta hezkuntza propioa batetik, eta pedagogia berritzailea zein heziketa aktiboa bestetik».

Heziketa eta haziera hartzen dituzte kontuan. «Saiatzen gara haurrek beren garapenerako zein baliabide dituzten adierazten. Beren iniziatibaz jarduten duten haurrak ditugu buruan, haur autonomoak, sormendunak eta ekintzaileak. Azken batean, haurren garapena, gurasotasuna eta heziketa izaten ditugu hizpide».

Ale berezia, 2016an jaiotakoei

Gurasoek izaten dituzten kezkei erantzuten saiatzen dira, eta ildo horretan, eta aldizkaria bera eza-gutzero emateko, 2016an jaiotako haur gipuzkoarren etxeetara ale berezi bat bidaltzeko asmoa dago. Hainbat gai landuko dira bertan: edoskitzea, mugimendu askea (umeen posturak ez behartzea), elikadura, zaintza, garbiketa, jolas askea, ingurunea eta natura, etxeko harremanak, familia mota desberdinak...

“Euskara, balio inportantea”

Hik Hasik hainbat baliabide sortu ditu, heziketa eta haziera euskaraz eskaintzeko. “Baliabideak eta tresnak badaude gaur egun. Guraso.eus eta Irrien Lagunak klubarekin ere harreman zuzena dugu RSS jarriorekin bidez; gurasoentzako diren gaiak zuzen-zuzenean partekatzen ditugu. Aisialdira begira ere, lan handia egin dute Gipuzkoako Urtxintxak, Elkarrek, Ereinek... Orain aukera gehiago dago. Horregatik, hutsunak ikusten dugun horretan saiatzen

gara, eta ez, badagoena errepikatzen”.

Argitaratu duten azken produktua, adibidez, kontzentrazioa eta erlaxazioa lantzeko CD bat izan da, Marina Pintos piano-jole eta yoga irakaslearekin. Hau ere, noski, euskaraz.

“Euskara guretzat balio inportantea da. Hizkuntza transmisioak balio asko dauzka. Etxean jasotzen ez bada, eskolak laguntzen du. Baina biak inplikatzeko inportantea da, bestela, aldeko jarrera

jaitsi egiten da. Eta hirugarren hanka, herria da. Eragin handiena etxeak dauka, baina behar du, baita ere, eskolaren laguntza, eta herriarena, aisialdiarena. Hala ere, etxeko transmisioak izugarriko garrantzia dauka. Guraso askok elkarren artean gaztelaniaz egiten dute, eta ezinbestekoa da euskaraz aritzea. Umek ikasten dute ikusten dutenetik, eta ez, esaten zaientetik. Umek gutxiestuta sentitu daitezke ikustean gurasoak gai garrantzitsuen inguruan gaz-

telaniaz aritzen direla, eta berarekin, euskaraz. Balioa kentzen diote euskarari. Guk geuk, euskararen transmisioaren gaia familian, eskolan zein herrian lantzeari berebiziko garrantzia ematen diogu, eta behin baino gehiagotan idazten dugu gai horren inguruan, bai Hazi Hezi, bai Hik Hasin. Horren erakusle da, adibidez, Hazi Hezi aldizkariako kontsultan atalean gurasoek dituzten hizkuntzaren inguruko zalantza eta kezka argitzera bideratutako atala”.

balio asko dauzka”



Buruntzaldeko Udaletako Euskara Batzordeek osatutako hiztegia, umeen hizkera jasotzen duena.

Euskararen transmisioa, jaioberritatik

Buruntzaldeko Udalek haurrak jaio diren etxeetara bidaltzen dute material sorta bat, opari eta aholku izan nahi duena.

“Etxeak du giltza” deitutako sorta bidaltzen dute Buruntzaldeko Udalek, haurra jaio den etxeetara. Asmoa da, zoriontzea, batetik, eta, bestetik, etxeak euskararen erabileran duen garrantziak jabearaztea.

Material horretan, bidaltzen dituzte zorion gutuna, umeentzako hitz goxoak biltzen dituen hiztegitxoak, lo kantuak edota jolaserako doinuak biltzen dituen CDa eta autoan jartzeko pegatina. Buruntzaldeko 655 etxetara bidali da



Buruntzaldeko Udalek euskarazko hainbat produktu bidaltzen dituzte haur jaioberrien etxeetara.

material hori 2014an.

Datorren urtean, ordea, aldizka-

ri bat ere izango da tartean: Hazi Hezi aldizkariaren ale berezia,

guraso izan berri direnei zuzendua. Horrez gain, hainbat Udalek asmoa azaldu dute Hazi Hezi aldizkariaren urtebeteko harpidetza ere oparitzekoa, hala nahi duten gurasoei.

Familiak duen pisua

Honekin guztiarekin, Buruntzaldeko Udalek azpimarratu nahi dute haurren euskara erabileran familiak zer nolako pisua duen. Izan ere, kezkatzen dituen gaitako bat da, familia euskaldunetan ere, helduen artean, gaztelaniara jotzen dela maiz etxean, eta horrek uste baino ondorio kaltegarriagoak dituela haurren erabileran.

Mikel Urdangarin eta 'Pikadero' filma, NOAUA! Kulturaldiaren lehen asteburuan



Mikel Urdangarin ostiral honetan arituko da Sutegin, 20:00etatik aurrera.

Nik egin dezakedan proposamenik zintzoena. Hori da entzuleak topatuko duena. Hala aitortu zigun aurreko astean Zornotzako kantariak. “Nire ahalmen eta muga guztiekin”. Izan ere, bakarka dabil azken bira honetan, taldekideen laguntzarik gabe. Espero zuenaren kontra, harrera beroa egin diote eta lau hilabeteke bira izango zena, luzatzen joan da. Eskaerak pilatzen joan zaizkiolako. “Halako hazkunde bat bizitzen ari naiz eta polita

da”. Beraz, ostiral honetan Sutegira hurbiltzen direnak Mikel Urdangarinen une gozosenaren lekuko izango dira.

Mikel Urdangarin

- Eguna: Azaroak 6 ostirala.
- 20:00etan, Sutegin.
- Sarrerak: 10 euro. Aldez aurretik 8 euro Lizardin, Artzabalen, Bordatxon, NOAUA!n. Bazkideek 6 euro (aldez aurretik eta NOAUA!n bakarrik).
- NOAUA! Kulturaldia.
- Babeslea: Usurbilgo Udala.



'Pikadero' filma igandean ikus ahal izango dugu. 19:00etatik aurrera Sutegin.

Barbara Goenaga eta Joseba Usabiaga dira komedia erromantiko honetako protagonistak eta Ben Sharrock eskoziarra, filmaren zuzendaria.

Sinopsia: krisi ekonomikoaren ondorioz, gurasoen habia utzi ezinik dabil bikote gazte bat. Larrua jotzeko gero eta grinatsuago eta hotel bat ordaintzeko dirurik gabe, elkar-gune publikoak bilatu behar dituzte: “txortalekuak”. Baina

gauzak ez dira diruditen bezain errazak, eta haien harremana kolokan jarriko da amiltzen ari den ekonomia batetik askatzen saiatzen direnean”.

'Pikadero' filma

- Eguna: Azaroak 8 igandea.
- 19:00etan Sutegin.
- Sarrerak: 6 euro. NOAUA!ko bazkideek 4 euro (aldez aurretik eta NOAUA!n bakarrik).
- NOAUA! Kulturaldia.
- Babeslea: Usurbilgo Udala.

Solasaldi literarioa, Yolanda Arrietarekin

Gazteak eta Literatura. Nola hurbildu gaurko jendea klasikoengana? Nola hurbildu klasikoak gurea? Zer da Tradizioa? Zer da Historia? Zer da Transmisioa? Balio dezake fikzioak txangoak egiteko denboran, esandakoa osatuz, orain aldia biziz, geroa imajinatuz? Galdera horien bueltan arituko da Yolanda Arrieta.

■ “Argiaren Alaba: txango bat denboran”. Euskadi Literatura Saria irabazi duen liburua hartuko du abiapuntu.



Argiaren Alaba liburuarekin Euskadi Saria irabazi berri du Yolanda Arrietak.

- Azaroak 12 osteguna.
- 19:30ean.
- Sarrera doan.
- Potxoenea, goiko solairua.

Joseba Larratxeren eraskusketa

Argia, Gaztezulo, H28... hainbat hedabideetan kolaboratzen du. Azken aldiko marrazkien erakusketatxo bat prestatu du eta Sutegi Udal Liburutegian izango dira ikusgai.



- Sutegi Udal Liburutegian.
- Azaroak 9/15. Astean zehar: 10:00-13:00/16:00-19:30. Larunbatean: 10:00-13:00.

Bertso-afaria, Gipuzkoako Bertsolari txapelketako lehiakide gazteekin

Gipuzkoako Bertsolari Txapelketan final laurdenetaraino heldu diren Ane Labaka eta Asier Azpiroz bertsolari gazteak ere, NOAUA! Kulturaldikiko protagonistak ditugu aurtengoan. Azaroaren 13an 21:00etan Artzabalen antolatu dugun bertso-afarira datoz. Gogotsu gainera lerrootan adierazi digutenez. Biekin txapelketaz jardun dugu lerrootan.

Gipuzkoako Bertsolari Txapelketak zer nolako sentsazioa utzi dizue?

Ane Labaka: Zain egon behar. Igande honetan da final laurdenetako azken saioa. Zaila dago. 6 bertsolarik abestuko dute, eta hiruk ni baino puntuazio baxuagoa izanez gero, finalerdietara pasako nintzateke. Orain arte egindakoaren inguruan, oso sentsazio ona dut. Duela lau urte hartu nuen parte lehen aldiz txapelketan, askoz okerrago pasa nuen, urduritasun eta tensio aldeetik. Orain hobeto eraman dut txapelketarena, gustura, bertsoaldi batzuetan gozatzea lortu dut.

Asier Azpiroz: Nahiko ona izan da. Bigarren txapelketa nuen. Oraingoan, neure burua bilatzen nuen pauso bat edo bi aurrera eraman nituelakoan. Lehenengo fasea nahiko eroso pasa nuen. Lehenengo saioa, seguruenik txapelketan egin dudana saio onena izan zen. Final zortzirenetan, Andoaingo saioan izugarri sufritu nuen oholtza gainea, baina egia da kanpotik ez zela hainbeste nabaritu. Espero nuen justu ibiliko nintzela eta azkenean nahiko puntu sorta bildu eta aurrera. Eta final laurdenetako saioarekin gustura egon nintzen. Saio orekatuagoa egin nuen. Baina apalago joan zen puntuazioa. Ateetan geratu



Ane Labaka eta Asier Azpiroz bertsolari gazteak, hurrenez hurren. Datorren astean Artzabalen arituko dira kantuan.

ASIER AZPIROZ

“Kantatzeko gehien gustatzen zaizkidan saioak halakoak izaten dira. Asmatuz gero satisfakzio handiena halako saioek ematen dute”

gara, baina gustura.

2011ko txapelketatik hona nola eboluzionatu duzue?

A.A.: Izugarritzko aldaketa ez nuke esango. Neure tokia zein den badakit eta saiatzen naiz, ez bertsolaritza arina, baina gaiari zuzen lotuko zaiona egiten. Lau urteetan zerbait aurreratu dugu, toki dezentetan aritu gara kantuan.

A.L.: Duela lau urte baino askoz lasaia gozatu aritu naiz oraingoan. Teknikoki lanketa bat egin dut. Dezente helduago sentitu naiz duela lau urtetik hona, eduki

ANE LABAKA

“Proposamena jaso nuenean, Asierri idatzi nion; ilusio handia egiten zidala berarekin abesteak. Gustura joango gara Artzabalera kantatzera”

aldetik batez ere. Zer esana baina eta esan nahi nuela sentitzen nuen.

Bertsolari belaunaldi berriari lekua egiten ari zaizue?

A.A.: Puntan lehengo bertsolariak daude. Baina belaunaldi aldaketa hori pixkanaka badatorrela igarri da txapelketa honetan. Lau urtetik hona neure inguruko bertsolariak aurrerago, gehiago gabilitza plazan. Finalerdietan ere nik uste igarriko dela.

A.L.: Aldaketa ematen ari da. Final laurdenetara askoz gazte eta

aurpegi berri gehiago sartu gara. Ez nuke esango erraza denik bertsolaritzan leku bat egitea plazaz plazakoan. Baina pixkanaka aukerak eskaintzen zaizkigu eta aukera horiek aprobetxatzen jakinez gero, bakoitzak bere bidean aurrera egiten du.

Bertso afaria

- Eguna: Azaroak 13 ostirala.
- Artzabalen, 21:00etan.
- Sarrerak: 18 euro. Bordatxo, Artzabal, Lizardi eta NOAUAn.
- NOAUA! Kulturaldia.

“Gu saiatuko gara gure onena ematen”

Azaroaren 13ko bertso afaria, txapelketa betean, zuentzako lasai gunea izango da?

A. L.: Abesteko gogo handia dut. Abesteko esan zigutenean idatzi nion Asierri ilusio handia egiten zidala berarekin abesteak. Oso gutxitan elkartu gara bertso afari batean. Gustura joango gara.

A. A.: Kantatzeko gehien gustatzen zaizkidan saioak halakoak izaten dira. Asmatuz gero satisfakzio handiena halako saioek ematen dute. Deia jaso genuenean, Anek eta biok elkarri idatzi genion, hemen aritzeak ilusio dezente egiten zigula adieraziz.

NOAUA!ren bertso afaritarako gonbita egin herritarrei.

A. L.: Normalean txapelketa edo lehia tartean denean, askoz morbo gehiago, eta askoz jende gehiago mugitzen dela. Baina hortik kanpo ere bada bertsolaritza. Hori erakusten saiatuko gara. Animatu!

A. A.: Aitzakia gabeko lekuan, otordua. Gu saiatuko gara gure onena ematen. Ez da damutuko bertara joaten dena.

Lehen mailako ofizial igeltseroa bost hilabetez kontratatzeko eskaintza

Eskualdeko enplegu planen baitan, Lanbidek diruz lagunduko duen enplegua sustatzeko egitasmoetako bat hesi arkitektonikoak kentzeko lanak egiteko 55 urtetik gorako langabetuak kontratatzea da.

Usurbilgo Udalak 1. mailako ofizial igeltseroa kontratatatu nahi du, 5 hilabetez eta aldi baterako. Hautaketa prozesuan parte hartzeko, ondorengo baldintzak bete behar dira:

Betebeharreko baldintzak:

- Lan eskatzaile gisa Lanbide erakundean izen emanda egotea, langabetu bezala.
- Mendebaldeko Donostialdeako udalerriren batean errolatua egotea (Usurbil, Lasarte-Oria, Andoain, Urnieta, Hernani, Astigarraga).
- 55 urte baino gehiago izatea.
- 1. mailako ofizial igeltseroa izatea.



55 urtetik gorako herritarrei zuzendua dago eskaintza.

Lanposturako baloratuko dena:

- Usurbilen erroldatua izatea.
 - Euskaraz hitz egiteko gaitasuna izatea.
 - Lanpostuarekiko egokitzapena.
- Izena ematea azaroaren 2an zabaldu zen eta azaroaren 13 arte luzatuko da. Hautaketa prozesua www.lanbide.eus web orriaren bidez zabalduko da.

Jardunaldi feminista, azaroaren 20an

Azaroaren 25ean gogoan izango dugun Emakumeen Aurkako Indarkeriaren Egunaren bezperatan, "Eztabaida feministarako Zapatismoaren ekarpenak: bizi osoko borroka indarkeriaren aurka" jardunaldia antolatu da azaroaren 20an 18:00etan Potxoenean. Cecilia Santiago (Chiapas, Mexiko), Idoia Arraiza (Bilgune Feminista), Cony Carranza Castro ("Mujeres del Mundo"), Kattalin Miner (Medeak) ariko dira hizlari laneetan. Mexikoko eta Euskal Herriko mugimendu feministen topagunea izan nahi duen elkar ikasi eta ezagutzeko saioa, elkarlanean antolatu da. Tartean dira, Lumaltik Herriak, Medeak, Euskal Herriko Bilgune Feminista, Usurbilgo Udala edota Gipuzkoako Foru Aldundia. Informazio gehiago: lumaltik.org



Hizlarien artean Kattalin Miner arituko da. Jardunaldia Potxoenean egingo da.

Xomorro-ren helegitea atzera bota dute

Espainiako Auzitegi Nazionalak atzera bota ditu hainbat euskal presok euskal herriratzeko eginiko eskaerak. Tartean, Xabier Aranburu "Xomorro" aginagarrena. 2017ra arte atzeratua zioten irteera data.

Bere eskubideen aldeko elkarretaratzea

Bere eta gainerako euskal preso, iheslari eta haien senideen eskubideak errespetatzea eskatu zuten herritarrek, Usurbilen Nahi Ditugu bilguneak deituta urriaren 30ean Mikel Laboa plazan egin zen elkarretaratzean.

Martxotik kalean behar zuen

Joan den martxorako kalean behar zuen aginagarriak, baina 2017ra arte atzeratua diote irteera data.



Urriaren 30ean presoek eskubideen aldeko elkarretaratzea egin zuten.

Errigorakoen otarrak eskatzeko azken egunak

NOAUA! Kultur Elkarteak egoitzan, Aizpurua Okindegian, Lizardi liburu dendan, Kaffa kafetegian eta Txiriboga, Artzabal eta Bordatxo tabernetan egin ditzakezue eskaerak, azaroaren 8ra arte.

Ordainketak erriberako produktuez hornituriko saskiak jasotakoan egin beharko dira. Jasotako laguntzaren %25a Nafarroa hegoaldeko euskalgintzara bideratuko dute Sortzen, AEK, Zazpiak Bat, Ikastolen elkar-teak eta Errigorak, elkartasun kanpaina honen sustatzaileek.

Eskubaloiko errifa zozketa

Maria Jesus Arruti dugu, Usurbil Kirol Elkarteko errifa zozketako saritu berria. Bi lagunentzako afaria irabazi du Patri jatetxean, 8.401 zenbakidun errifaren jabeak.



Patri jatetxean, bi lagunentzako otordua egokitu zaio.

Antxetako afariaren zozketa

3.578 izan da Usurbil K.E.-k antolatutako zozketako zenbaki saritua. Sarituari, Antxetan 2 lagunentzat afaria egokitu zaio.

Alegia-Lekunberri irteera

Igandean goizeko 7:30ean irtengo dira Oiardo Kiroldetgitik. Autobusez egingo da joan etorria. 24 kilometroko bidea osatuko dute mendizaleek. Janaria norberak eraman beharko du, edaria antolatzaileen esku. Izen-ematea asteazkenean itxi zen.

Futbola Haranen

Azaroak 7, larunbata

10:00 Alebin mutilak:

Udarregi 6B-Landaberri 6A

Udarregi 5B-Landaberri 5A

11:30 Infantil neskak: Usurbil FT-Añorga A

15:30 Jubenilak: Usurbil FT-Ostadar SKT

17:30 Preferenteak: Usurbil FT-Ilintxa SD

120 kirolari, Zubietako Mendi Duatloian

1 20 bat partaide eta giro ederra larunbatean Zubietan ospatu zen V. Mendi Duatloi proban. Giro ederra eta lehia bizia. Dena eman zuten kirolariek, korrika nahiz bizikleta gainean osatu beharra zuten 22 kilometro pasatzoko ibilbidean.

Partaideen artean, baziren etxe-koak ere. Podiumean orde, bertako ordezkariarik ez. Euskal Herriko Mendi Duatloi Zirkuituaren baitan



Partaideen artean ere baziren herritarrak. Emaitzak: mendiduatloia.com

ospatu zen larunbat honetako proba.

Sailkapena, mendiduatloia.com atarian kontsulta dezakezue.

Pilota elkartekoak, denboraldi berrirako prest



Jokalariok arituko dira 2015-2016 denboraldian.

I kasturtearekin batera, talde-argazkia egiteko ohitura oso zabaldua dago. Usurbilgo Pilota Elkartekoek duela bi aste egin zuten "familia argazkia". Bide batez, laguntzaile dituztenei eskerrak eman nahi dizkiete: Usurbilgo Udala, Usurbilgo Kirol Patronatoa, Aginaga sagardotegia, Saizar sagardoa, Alkartasuna Baserritarren Kooperatiba, Bordatxo edaritegia, Kima masaia lekua, Easo, Hurbilago, Bruño mariskoak.

Gipuzkoako txapelketa
Azaroak 5 osteguna 18:00
Nagusiak 3. maila:

PAGAZPE - EPLE (Erreterria)
(Enrike Huizi-Mikel Landa)

Azaroak 5 osteguna 20:00, Aginaga
Nagusiak 2. maila
PAGAZPE - BEHAR ZANA
(Haritz Lertxundi-Asier Katalina)

Azaroak 7 larunbata, 17:00 Aginaga
Pala goma 2. maila:
PAGAZPE - PIÑA KURDIN
(Enrike Huizi-Jon Olaizola)

Pala goma 3. maila:
PAGAZPE - ZARAUZ 2
(Xabier Murua-Aitor Matxain)

Nagusiak 1. maila:
PAGAZPE - HERNANI
(Xabier Urbietia-Ander Quina)

Hainbat egokitzapen Oiardo kiroldegian

Oiardo kiroldegiko igerileku txikiak ura galtzen zuela jabetu zen Kirol Saila. Azterketak egin ondoren, konponketa lanak abiarazi eta aste honetan hau berriz betetzea eta berotzea espero da. Hala adierazi digute Usurbilgo udaletxetik.

Bestetik, kirol anitza pistana, uda sasoiaren bero handia egiten du. "Puntu honetan ere, beharrezko egokitzapenak egin dira, kordinak jarri eta aire ekipamendua berrituz". Hauek aurrera eramaten ari dira egunotan.

Ez dira egokitzapen bakarrak izango. "Uneoro kiroldegiko era-bilera eta edukiera neurtzeko, sarrreran tornuak eta ateak jarri dira, horrela segurtasun neurrietan aurrera pausoak emango direlarik".



Kadete nesken B taldea, txapeldun

Lehen fasea lehen postuan amaitu dute. Bigarren faseari ekingo dio orain Usurbil K.E.-ko taldeak.

Eskubaloia Kiroldegian

Azaroak 7, larunbata

■ 09:30 Alebin neska,
Buruntzaldea: Udarregi 6B-Urnieta 5
■ 10:30 Alebin neska, Buruntzaldea: Udarregi 6C-Udarregi 5A

■ 10:30 Alebin neska, Buruntzaldea: Udarregi 6A-Udarregi 5B
■ 11:30 Infantil neska, Gipuzkoako Txapelketa:

Udarregi A Usurbil-Orio ZKE

■ 12:45 Infantil mutilak,

Gipuzkoako Txapelketa:

Udarregi B Usurbil-CB Urola B

■ 14:15 Jubenil mutilak, Euskal Liga:

Usurbil K.E.-Aiadek Pulpo K.E.

■ 16:00 Kadete mutilak, Euskal Liga:

Usurbil K.E.-Pulpo K.E. zumaia.net

■ 17:45 Kadete neska, Gipuzkoako

Txapelketa: Usurbil K.E.-Pulpo K.E.

■ 19:30 Senior neska, Euskal Liga:

Usurbil K.E.-Bera Bera

Azaroak 8, igandea

■ 10:30 Alebin neska eta alebin mutilak: Errendimendu hastapenerako liga. Prestakuntza saioa.

Eskubaloia, selekzioa

Azaroak 8, igandea

■ 15:40 Kadete nesken entrenamendu saioa, Eibarko Ipurua Kiroldegian. Usurbil K.E.-ko Ainhoa Illarramendi Jauregiberri gonbidatu dute.

■ 15:40 Infantil mutilen entrenamendu saioa, Getxoko Fadura Kiroldegian. Usurbil K.E.-ko Eneko Furundarena Maiz gonbidatu dute.

■ 16:30 Jubenil mutilen entrenamendu saioa, Barakaldoko Lasarre Kiroldegian. Usurbil K.E.-ko Mikel Atxega Arruti gonbidatu dute.

■ 17:30 Jubenil nesken entrenamendu saioa, Arrasateko Iturripe Kiroldegian. Usurbil K.E.-ko Ane Irazabal Esnaola, Estitxu Berasategi Eizagirre.

■ 17:30 Kadete mutilen entrenamendu saioa, Getxoko Fadura Kiroldegian. Usurbil K.E.-ko Eneko Iribar Zumeta gonbidatu dute.

ETXETRESNEN KONPONKETAK
Moduz, azkar eta prezio onean
MARKA GUZTIAK
645417665
XABIER
Usurbil

URDAINTZI
eraikuntzak
649 43 54 75 / 76
943 36 72 64
eraikuntzak@euskalnet.net
ERAIKUNTZAK-OBRAK-ERREFORMAK

Josue
Igeltseritza
606 37 21 05
Atallu pol.28 USURBIL

Uraitz, s.l.
Igeltseritza
Orokorra
693 059 392
uraitz@uraitz.com USURBIL

ETXEBIZITZA

Salgai

Pisu bat salgai. 90 metro karratu. 3 logela, 2 bainugela, jan-egongela eta sukaldeak jantokia aparte duela. 605 707 642.

Txaramunto kalean etxebizitza salgai. Hegomendebaldera begira. 98 m² + balkoia, egongela/jangela eta sukalde. 3 gela. 2 komun. Garajea eta trastelekua aukeran. Iker (686912979)

Atikoa Zubietan, 110m² erabilgarri. 2008-an guztiz berritua, teiatuaren estruktura ere. 3 logela handi, 2 komun, 30 m²-ko egongela. Haize egokitua. 225.000. 669781959 Julien

Pisua salgai Santuenean. Egoera onean. 3 logela, sukalde, komun eta nahi izan ezker garaje moduko batekin. 659 460 979.

2 gela, komun, sukalde eta sala dituen etxe bat erosiko nuke. Gehienez 90.000 euro. 689 58 39 21.

Bi gelako etxebizitza salgai. Komuna, hall, sukalde. Eguzkitsua. 3. pisua igogailuarekin Muna Lurra kalean. 175.000 euro (620826891).

Etxe txiki eta merke bat erosi nahi nuke. Edo alokairu baxuko bat hartuko nuke. 615 758 476.

Usurbilen edo inguruan eraikgarria den lur eremu erosiko nuke. 636393237

Pisua salgai, Artzabalen. 3 logela, 2 komun, terraza eta trastelekua (altzariekin) eta garajea (2 kotxerentzat). 657 771 126

Etxea salgai (Kutxa gainean). 3 logela, egongela, sukalde, komun, trastelekua. Dena kanpoaldera. 607 572 106

Etxebizitza eta garaje marra salgai Munalurran. 4. pisua. 2 gela, egongela, komun eta sukalde. 163.000 euro. Tel. 646 663 405.

Pisu bat salgai Munalurran. Erreformatu berria. 690 15 36 31 (Ane)

OHARREI DAGOKIEN ARAUTEGIA

Orri honetan agertzen diren oharrak doakoak dira. Telefonoz edo emailaz helarazi daitezke: 943 360 321 / erredakzioa@noaua.eus

Oharra baldintzeko azken eguna: astelehena, eguerdiko 12:00ak. Atal bakoitzaren goikaldean ipiniko ditugu berrienak. Oharra egokia ez dela erabakiko balitz, NOAUA!k ohar hori argitaratu gabe utziko luke.

Pisua salgai Urdaiajan. Trenbide-pasagunearen ondoan. 56m². Pisu baxua. Berritua. Sukalde irekia, esekilekua, egongela, 2 logela eta komun. Komunak salbu gela guztiak ditu kanpora. 90.000 euro. 646344847

Etxebizitza salgai Zubietan. 1.Esk. 118 metro koadro, baratza 2.500 m eta oilategia 140 m. Erreformatu egiteko. 200.000 euro. 616 649 674 Jabier.

Pisua salgai edo alokairuan Munalurran. 637 309 209.

Santuenean pisu bat salgai. Erreformatzeko, prezio onean, aukera ezin hobea. Iñaki (665736896)

Etxe bat salgai Munalurran. Dena kanpo aldera. 3 gela, sukalde, egongelarekin, komun bat, eta terraza bat armairu batekin eta dena itxita. Tel. 637 225 620.

Pisua salgai Kaxkoan. Pisu berria, lehen mailako materialekin egina. 608 227 462. Prezioa jaitsi dugu; orain, 36 milioi pezetatan

Etxea salgai Santuenea auzoan. 64 metro karratu. Dena kanpoaldera. Egoera ezin hobean. Merkea, 678 581 991.

Alokairuan

Alokatzeko pisu bila nabil. Telefono zenbakia: 615730680

Gela bat alokatzen dut Usurbilen. Emakume edo neska arduratsua izan behar du. Tel. 665 319 105.

2 lagunentzako alokairuko pisu bila. Behoko solairua eta terrazaduna bada hobe. 610 73 59 64.

Logela bat alokatzen dut. Pertsona 1 edo 2rentzat. Prezio ona.

657 535 299.

Alokairuko pisu baten bila nabil Usurbilen, nominarekin. 664885737

Pisu baten bila nabil, txikia eta merkea. Txakurra daukat. 682 214 506.

Emakume bat gela baten bila dabil partekatzeko 17:30-18:30 deitu (Marisol). 674463942

MOTORRA

Salmenta, garajeak

Baju komertzial bat salgai Erdiko kalean. 62 metro koadro, solairu batekin. 600 369 013 / 943 371 827

Garaje itxi bat salgai 36,30 metro koadro. 2 kotxerentzat edo garaje-trastero moduan. Erreka-txiki-Puntapaxetik. 653380557.

Oso argitsua den 70 metro karratuko lokal komertziala salgai Santuenea auzoan 671547567

Lokal komertzial bat salgai, 60 metro karratu. Erdigunean. Tel. 679 732 489.

Garaje itxi bila nabil. Motorra uzteko izango litzateke. 645720571

Bi garaje saltzen dira. Batera edo binaka. 21 eta 25 metro karratukoak. Santuenea 17. 615149900.

Moto bat salgai, Kymco markakoa. People 125. 618 963 385.

2 Garaje (marra) salgai edo alokairuan. Biak batera edo aparte. Olarrondo inguruan. 607 333 966.

LANPOSTUAK

Lan eskaerak

Emakume bat eskaintzen da, goizez, 2 edo 3 orduz etxeko garbiketarik egiteko. Tel. 620 625 823.

Emakume bat eskaintzen da asteburutan pertsona helduak zaintzeko. Tel. 646 756 555.

Neska gazte euskaldun bat haurrak arratsaldetan zaintzeko prest eskaintzen da. Esperientziaduna haurrak zaintzen eta udalekuean. Tel. 661 626 500. (Maialen)

Mutil gazte bat LH eta DBH-ko ikasleei klase partikularrik emateko eskaintzen da. Tel. 617 916 242. (Oinatz)

Lan bila nabil. Edozein lan egingo nuke. Interna moduan ere bai. Umeak edo helduak zaintzen, garbiketa lanak egiten, jatetxeren batean harraskako garbiketarik egiten, etab. Tel. 676 188 411

Pertsona helduak zaintzen lan egingo nuke asteburutan. Esperientziarekin. 657 708 895.

Pertsona bat eskaintzen da propaganda edo gutunak banatzeko. Tel. 943 364 527.

Mutil bat eskaintzen da, helduak zaintzeko, baserriko lanetan aritzeko edota edozein lanetarako. Interno moduan lan egiteko prest. Tel. 662 286 266.

Lan bila nabil. Interna moduan eta umeak zaintzen. Tel. 645 530 490

Auxiliar geriatra eta sukaldari bat eskaintzen da, paper, esperientzia eta nazionalitatearekin, adineko pertsonak zaintzeko. 10 urteko esperientzia sukaldean, garbiketetan. Arduratsua. 622 487 879.

Lan bila nabil. Baimen guztiak ditut. Esperientzia biltegiko lanetan eta banaketan. 657 535 299.

Pertsona helduak edo umeak zaintzen lan egingo nuke. Orduka, interna edo egunean lan egiteko. Papelekin eta erreferentziekin. 627 487 592.

Pertsona helduak edo umeak

zaintzen lan egingo nuke. Orduka, interna edo egunean lan egiteko. Papelekin eta erreferentziekin. 631 321 981.

Erizain laguntzaile tituluduna eskaintzen da pertsona helduak zaintzeko. Bertakoa eta euskaraz dakiena. Tel. 622 925 562.

Nikaraguakoa eta 28 urteko mutila, pertsona helduak zaintzeko eskaintzen da. Interno moduan edo nahi den bezala. Badaki etxeko lanak egiten. 687 348 223.

Pertsona helduak zaintzen esperientzia asko duen mutil bat, lan bila dabil. Gauetan, orduka edo asteburutan. Tel. 648 761 874.

Gauean laguntzaile moduan, orduka edo asteburutan lan egiteko neska bat eskaintzen da. Paperekin eta esperientzia askorekin. Gomendio askorekin. 638 602 597.

Neska bat eskaintzen da, helduak edo umeak zaintzeko. 695 602 828.

Latina, frantsesa, ingelesa, euskara klaseak ematen dira, etxean. Ekonomikoa. 600766068

Arratsaldetan pertsona helduak zaintzen lan egingo nuke. 30 urteko esperientzia. 682 214 506.

Lan bila nabil. Garbiketetan, plantatzeko eta interna moduan ere bai. Larunbat, igande eta jai egunetan ere prest nago. 676 188 411.

Arratsaldetan lan egiteko prest nago. Pertsona helduak gauetan zaintzeko ere bai. 943 045 428.

Erizain laguntzaile bat eskaintzen da esperientziarekin. Pertsona heldu ezinduek edo amaieran dauden pazientzeko zaintzeko. Etxean zein egoitzetan. 943 365 079 / 635 715 142.

Neska bat eskaintzen da garbiketarik egiteko, pertsona helduak zaintzeko... Esperientzia, erreferentzia eta papela. 618 889 530.

Lan bila nabil. Orduka, umeak



Aupa Beñat! Zenbaki borobila! Hamar urte bete dituk azaroaren 2an. Zorionak etxeko guztien partez eta muxu pila bat! Segi beti bezain jator!



Zorionak Haitz! Hau poza, azaroaren 7an 6 urte! Ondo pasa. Maite zaitugu. June, Eñaut, Aitaxo eta Amatxo.



Zorionak Laiane! Urte askotarako, familia osoaren partez.



Zorionak Liher! Bi urte eta hamar maika muxu zuretzat.



Aupa Patxi!

Beste urte bat txanpaina gordetzen. Gehiegi metatu dizkiagu dagoeneko. Sakakortxo berezitik tiratzen ari gaituk, ez botailak irekitzeko, hi eta besteak hortik ateratzeko baizik!

Heriotzak

Jabier Dorronsoro Yurramendi
67 urterekin hil zen
azaroaren 1ean, Usurbilen



OHARRA: Azaroaren 13an aterako dugu hurrengo NOAUA! astekaria. Oharrak, zorion-agurrak, bestelako deialdiak... jakinarazteko azken eguna: azaroak 9 astelehena. E-postaz: erredakzioa@noaua.eus

edo helduak zaintzen, etxeko lanak egiten... Interna moduan ere bai. Erreferentziak. 656 186 617.

Lan egingo nuke. Garbiketan... orduka. Gauetan pertsona helduekin lo egiteko edo zaintzeko edo konpainia egiteko prest nago. Tel. 676 188 411.

Emakume euskalduna eskaintzen da ume txikiak zaintzeko edo garbiketarako egiteko. Irailetik aurrera. Arduratsua. 671 547 567.

Mutil gazte bat eskaintzen da, ingelesa, frantsesa, latina, filologia emateko. Merkea. 600 766 068. Jokin

Emakume euskalduna adineko pertsonak edo haurrak zaintzeko prest. Klinika laguntzaile tituluarrekin 688826968.

Pertsona helduak edo umeak zaintzen prest. Interna bezela ere. Edozein ordutegi. 608299579

Pertsona helduak edo umeak zaintzen lan egingo nuke. Interna bezela ere bai. Edozein ordutegi. Esperientziarekin. 722 575 781.

Pertsona helduak zaintzen edo garbiketan lan egingo nuke. Interna bezela ere bai. Edozein ordutegi. Esperientzia eta papelekin. 690146067.

Mutil bat lan bila dabil helduak zaintzeko edo baserrian lan egiteko. 690146067.

Interna moduan lan egingo nuke pertsona helduak zaintzen. Esperientzia daukat. Ezagutza, sukaldaritza, garbiketaren... 604148284.

Lan bila nabil. Esperientzia sukalde laguntzaile bezala, zerbitzari bezala, garbiketan, karga eta deskargan, frutadendan... 663 447747.

Lan bila nabil, orduka edo interna moduan. Garbiketa lanetarako edo helduak zaintzeko. 631 277 061

Gidabaimen guztiak ditut, baita garabi eta orgatilara ere. Lan prebentzioko ikastaroa daukat. Esperientzia altua. 657 535 299.

Lan bila nabil. Interna moduan

nahiago. Esperientziarekin, eta papelak egunean. 680 804 124.

Neska arduratsua lan bila dabil. Interna moduan pertsona helduak zaintzeko edo etxeko lanak egiteko. Xiomara. 631 193 521.

Emakume euskalduna gertu interna joateko moduan. Klinika laguntzaile tituluarrekin. Tel. 688 826 968. Deitu: 17:00 - 19:00, eta larunbata 15:00 - 19:00.

Neska, garbiketa lanak egiteko edo pertsona helduak eta haurrak zaintzeko. Interna edo externa moduan, arduratsua eta erreferentziarekin. 631 333 251

Neska, garbiketa lanak egiteko edo pertsona helduak eta haurrak zaintzeko. Interna edo externa moduan, arduratsua eta erreferentziarekin. 653 620 770

Neska, garbiketa lanak egiteko edo pertsona helduak eta haurrak zaintzeko. Interna edo externa moduan, arduratsua eta

erreferentziarekin. 672 740 521

Pertsona helduak zaintzeko, interno eta orduka. Gauak etxean edo hospitalean pasatzeko. Esperientziarekin. 648 761 874.

Paperak ongi dituen neska bat lan bila dabil, etxeko lanak egiteko, orduka. Esperientzia handia. Erreferentziarekin. 638 602 597.

Neska euskaldun batek lan egingo luke arratsaldetan, 4 ordu, helduak zaintzen. 626 735 354.

Emakume bat lan bila dabil etxe batean bere seme-alaba gazteekin bizitzeko. Lasarte edo Usurbilen. 689 344 946.

Lan bila nabil. Interna moduan, orduka...Paperak ongi eta erreferentziak (umeak zaintzen, garbiketan eta ostalaritzan) 698 322 406.

Lan bila nabil, sukaldari, zerbitzari, gidari laguntzaile moduan edo garbiketa industrialean. Paperak

ongi. 688 268 625.

Goizez lan egingo nuke garbiketa lanetan edo umeak edo helduak zaintzen. 661 378 340.

24 urteko neska usurbildar euskalduna klase partikularrak emateko prest. Euskara: EGA titulua (goi maila) Ingelesa: Advanced titulua (goi maila) Frantsesa: Goi maila 687025768 (Jaione)

Emakume euskalduna, gertu interna bezala joateko pertsona nagusiak zaintzeko. Klinika laguntzaile tituluarrekin. 619511789 / 943 760418.

Paperak ongi dituen mutil bat lan bila dabil. Pertsona helduak zaintzen, etxeak garbitzen, sukaldeko laguntzaile moduan, harraskan garbitzen, peoi... 648 761 874.

Orduka lana egin nahi duen neska euskaldun bat naiz, eta garbiketan edo umeak zaintzen lan egingo nuke. 635 715 424 Julia.

BESTELAKOAK

Memoria txartela galdu da argazki kamerarena, aurkitu baduzu eraman NOAUAra mesedez.

Bi "artzai txakur" oparitzen ditut. Bata lau urtekoa, etxea zaintzeko eta bere kumea, hiru hilabete eta erdikoa. Tel. 660 093 071.

Giltza batzuk agertu dira Bizkartzon. Galdu dituenak pasa NOAUAtik, bertan ditugu eta.

Eguzki-elkartean bazkide egiteko aukera. Tel. 677 62 14 65

Giltza batzuk galdu dira, erdigunean. NOAUAIn edo Udaltzaingoan uztea eskertuko nuke.

Bosch markako garbigailu bat salgai. Urte bete pasatxo dauka. Berri berria dago. Tel. 943 363 201.

Irailan Zubietako Lertxundi gainan aurkitu nituen betaurreko batzuk. Berreskuratzeko deitu Euxebiori: 943362665.

3 katu oparitzen ditut, 3 hilabete eta erdi dituzte. Tel. 688 827 995.

Haur-sila bat salgai. "Bebe confort" marka LA modeloa. Beltza eta berri-berria dago. Burbuja eta eguzkitakoarekin. 666 373 665.

Hiru plazako eta bi plazako sofak salgai, larruzkoak, egurrezko ertzeekin. Egoera onean, 500 euro negozigarri. usurbil72@hotmail.es

Hemengo urra erosiko nuke. Deitu 634 409 888.

Denborarik ez baduzu zure masakota paseatzeko, nik lagunduko dizut. Ordubeteko ibilbideak. As-teburutan. 688 888 176. Pablo.

Mutil gazte bat prest dago, rotabatorearekin lurra biratzeko eta eskuz buelta emateko lurrari. Prezio ekonomikoa. 610 14 19 40

TRUKEAN, OPARI

Inprimatzaileak, telebistak, patineteak, liburuak... Garbigunean. Doan hartu daitezke. Astelehenetik ostiralera: 10:15-13:00 / 16:00-19:00 artean. Jai egunak ez diren larunbatetan: 9:00-13:00 artean

Telefono interesgarriak

Udala.....	943 371 951	Abere-Landare Babeslea.....	943 376 650
Atez ateko bulegoa.....	900 776 776	Taxia (Angel).....	607 928 770
Udaltzaingoa.....	943 361 112	Taxia (Joxe Kruz, 8 plaza).....	677 373 466
Udal zerbitzuak (Brigada).....	943 370 148	Eusko Tren.....	943 470 976
Sexu Aholkularitza Gunea.....	697 919 516	LurraldeBus.....	943 000 117
Gizarte Zerbitzuak.....	943 377 110	Korreos - posta zerbitzua.....	943 362 894
Diputazioa - Basetxea.....	943 361 215	Anbulategia.....	943 362 013
Bake Epaitegia.....	943 372 336	Oa botika.....	943 376 076
Udarregi Ikastola.....	943 361 216	Iturralde botika.....	943 363 395
Haur Eskola.....	943 374 061	DYA.....	943 464 622
Zubietako Lanbide Eskola.....	943 364 600	Gurutze Gorria.....	943 272 222
Zubietako Herri Batzarra.....	943 372 077	Emergentziak.....	112
Hastapen tailerrak.....	943 360 465	Genero-indarkeria, arreta ..	900 840 111 / 016
KZgunea.....	943 023 684	Gonzalez Ehorztetxea.....	943 362 163
Oiardo Kiroldegia.....	943 372 498	Gipuzkoa Donostia Kutxa.....	943 361 202
Sutegi Udal Liburutegia.....	943 360 692	Euskadiko Kutxa-Laborala	943 364 740
Zumarte Musika Eskola.....	943 371 594	Banco Guipuzcoano.....	943 370 006
Etumeta AEK euskaltegia.....	607 609 379	Banco Popular Español.....	943 370 411
Kalezar Eguneako Zentroa.....	943 365 249	BBVA.....	943 377 155
Gure Pakea Zahar Egoitza.....	943 368 770	Oja Rural Kutxa.....	943 368 842
Gure Elkartea Zahar Egoitza.....	943 371 751	Argindarra - Iberdrola.....	901 202 020
Arrate Zahar Egoitza.....	943 366 340	Gas naturala - Naturgas.....	902 123 456
Usurbilgo Salbatore Parrokia.....	943 361 239	Telefonica.....	1004
Noaual Kultur Elkartea.....	943 360 321	Euskaltel.....	900 840 840

Goardiako farmaziak

Osteguna 05 DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte

Ostirala 06 LASA SUQUIA Kale Nagusia 42, Lasarte

Larunbata 07 GIL Kale Nagusia 24. Lasarte

Igandea 08 GIL Kale Nagusia 24. Lasarte

Astelehena 09 ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte

Asteartea 10 GIL Kale Nagusia 24. Lasarte

Asteazkena 11 URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte

Azaroak 5 - azaroak 15

Osteguna 12 GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte

Ostirala 13 URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte

Larunbata 14 ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte

Igandea 15 ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte

* LARUNBATETAN, Usurbilgo bi farmaziak irekita egongo dira: 9:00-13:30

<https://www.cofgipuzkoa.com/>

GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ
ECHEVESTE ELOSEGUI, JORGE
Elkano 9 Behea, Hernani. 943 55 20 87
22:00 - 09:00

Agenda

azaroa

06 ostirala

- Gure Esku Dago bilera 19:00 Potxoenean.
- NOAUA! Kulturaldia: Mikel Urdangarinen kontzertua 20:00etan Sutegin.
- Bateginik erakusketa Sutegin.

07 larunbata

- KMK15: eskertza jaialdia. Egun osoz.
- "Erraustegia Erabakia" plataformaren aurkezpena 11:00etan Potxoenean.
- Bateginik erakusketa Sutegin.

08 igandea

- Tipi-Tapa Pintxo dastaketa.
- NOAUA! Kulturaldia: 'Pikadero' filma. 19:00etan Sutegin.
- Bateginik erakusketa Sutegin.

Kilometroak eguna sustatu zuten guztiei eskerrak emateko garaia

Hilabete igaro da #Kilometroak2015 jaialdia ospatu zenetik. Baina prestaketa lanak askoz lehenago hasi ziren. Herritar askok, urte osoa eman dute lanean. Eta #Kilometroak2015 posible egin zutenei eskerrak emateko ordua iritsi da. Larunbat honetan izango da horretarako aukerarik. Eskertza ekitaldi ugari antolatu ditu Udarregi ikastolak. Hauxe da, zehatz mehatz, prestatu duten egitaraua:

- 13:00 Lotzen GaTTunk abestia guztion aho-tsetara Mikel Laboa plazan.
- 14:30 Herri bazkaria frontoian. Menua: paela, txahal masailak saltsan, arroz esnea eta kafea.
- 18:00 Erromeria frontoian.



Kantuz hasiko da eskertza ekitaldia.

- Ondoren, herriko musika taldeen kontzertua frontoian.
- Antolatzaileak: Udarregi Ikastola eta Usurbilgo Udala.

Liburutegiak 10 urte: Irakur Puntu berriak

Ostiral honetan, egun guztian zehar, "10. urteurrenko Irakur Puntu berriak banatuko ditugu (Sorpresa!), eta whatsapp bidezko erabiltzaile-Liburutegi komunikazio bide berria abian jarriko dugu". Hala jakinarazi du Udala Liburutegiak.

Brotxetak, igandeko Tipi Tapan

Aitzaga, Artzabal, Txiriboga, Txirristra eta Bordatxo tabernetan, brotxeta eta edaria bi euroren truke eskuratu ahal izango dira. Ohi bezala, sariak ere izango dira. Lehen saria, 150 euroko erosketa balea. Bigarren ssaria, 2 lagunentzako afaria. Zozketa 15:00etan egingo da.

Datozenak

Herritar txartelaren diseinu lehiaketa, azken txanpan

Usurbilek erosketak egin edota herriko zerbitzuetan identifikatzeko herritar txartel berria izango du 2016an. Txartel honen izena eta irudia hautatzeko lehiaketa antolatu dute. Lanak azaroaren 6a baino lehen aurkeztu behar dira. Oinarrien berri, hurbilago.com web orrian.

Yolanda Arrietaren hitzaldi-solasaldia

Azaroaren 12an osteguna, Yolanda Arrietak "Argiaren Alaba: txango bat denboran" izeneko solasaldia eskainiko du. Potxoeneko goiko gelan, arratsaldeko 19:30ean. Sarrera doan.

Bertso afaria Artzabalen

Noiztik ez duzu bertso-afari batean parte hartu? Datorren asteburuan, aukera ederra duzu. Asier Azpiroz eta Ane Labaka bertso-lariak Artzabalen arituko dira kantuan, eta Iñaki Agirresarobe gai-jartzaile lanetan.

- Azaroak 13 ostirala, 21:00etan Artzabalen.
- Afariko menua: aperitiboa, entsalada epela, entrekota patatekin, azkenburukoa, edaria eta kafea.
- Txartelak: 18 euro (aldez aurretik salgai, Bordatxon, Artzabalen, Lizardin eta Noaua!ko egoitzan).

Haginak ondo dabiltzanean, sabela poz!

USURBILGO HORTZ KLINIKA

FERNANDO PEREZ-MOSSO NENNINGER
ANTONIO BERNAL RUIZ DE OÑA

Kale Nagusia 10, 1.C4
Tlf 943 37 08 78

20170
USURBIL

ELORZA

O BRAK ETA
ER REFORMAK S. L.

661 804 688

San Esteban 5, baxua USURBIL jon.elorza@hotmail.com



INAUGURAZIO BERRIA!
AZAROAREN 5ean
OSTEGUNA 19:00
DENONTZAT IREKIA!

TXAPELDUN *TABERNA*

· pintxoak · razioak · ogitartekoak
 · plater konbinatuak · eguneko platera



FINKA ADMINISTRATZAILE

ASESORIA ZERBITZUA

INMOBILIARIA

ASEGURUAK

943 573 693

Baxoalde 4 behe, ORIO

USURBILen ARKITEKTO TEKNIKO ZERBITZUA **MOTA GUZTietAKO PROIEKTUAK**

- Obra berriak · Erreformak · Etxebizitzak berriztatzea
- ITE- Inspekzio teknikoak · Ziurtagiri-energetikoak
- Jarduera-proiektuak · Legalizaioak · Lokalen atontzeak



unaiaizpurua
 arkitekto teknikoa

Tel: 605 773 982 USURBIL email: unai.ark.teknikoa@gmail.com



NOAUA!ren KULTURALDIA 2015

Usurbilen azaroaren 6tik 15era



azaroak 6, OSTIRALA

KONTZERTUA

"M. Urdangarin" 20:00etan Sutegin



azaroak 12, OSTEKUNA

HITZALDIA

"Argiaren alaba" 19:30etan Potxoenean



azaroak 14, LARUNBATA

ANTZERKIA

"Arrastoak" 20:00etan Sutegin



azaroak 8, IGANDEA

ZINEMA PIKADERO

19:00etan Sutegin



azaroak 13, OSTIRALA

BERTSO-AFARIA

21:00tan Artzabalen



azaroak 15, IGANDEA

IBILALDIA

10:00tan Arratzainen



azaroak 9tik 15era

ERAKUSKETA

"LAUKI" Joseba Larretxe. Liburutegian